

ORTZADAR

04|05|11 **DEIA** Euskal kultura



GURE EUSKARAREN EDERRA/2. JOSEBA SARRIONAINDIAREN “NARRAZIOAK” ERREPORTAJEA/3. ANJEL MARIA SALAZAR ETA EUSKAL ABENTURA ZALEAK LITERATURA/7. UR APALATEGI IDAZLEAREKIN BERBETAN AGENDA/8 KONTZERTUAK, LIBURUAK, HITZALDIAK...



Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aldundia Diaputacion Foral de Bizkaia

Haize bolada berritzailea albokarentzat

Ibon Koteron albokari bilbotarrak lan berria plazaratu du, “Airea” (Elkarlanean)

Esaera zahar batek dio “Arnasie artu eta putz eñ, bixak batara ezin”. Hori horrela balitz ez legoke albokaren soinua errotikoa entzuteko aukerarik izango; izan ere, alboka jotzeko arnasa hartzen da putz egiten den bitartean. Zorionez alboka bezalako musika tresna tradizionalak entzungai dira gaur egun ere, gero eta gehiago gainera. Laurogeigarren hamarkadako azken urteetan galzorian

zen tresna da alboka. Leon Bilbao eta Txilibrin albokari handien bidea jarraituko zuenik ez zegoen nonbait. Orduantxe hasi zen Ibon Koteron alboka jotzen. Hasi eta berehala gainera, eskola sortu zuen Bilbon. Albokaren biziraupenerako urratsik garrantzitsuenak, ordea, 1996. urtean heldu ziren. Koteron bera eta Kepa Junkerak, Leonen omenezko diskoa kaleratu (“Leonen Orroak”) eta estrainekoz albokaren berri izan zuten askok. Koteronek berak aitortzen duenez, gazte asko hurbildu ziren orduan bere eskolara alboka jotzen ikasteko. Hura berreskurapen lan ikaragarri baten lehen urratsa besterik ez zen izan. Tradizioari muzin egin gabe, eboluzioaren bideari erreparatu dio Koteronek azken urteotan. Bere lan berria, “Airea”, horren eredu da. **4-5 orrialdeak**



Ibon Koteron albokariak bere azken lana aurkeztu du egunotan, “Airea”.

Argazkia: Jose Sampedro